



GALIZIERA AZKEN 20 URTEAN: GLOTO- HILKETAREN ETA ERRESISTENTZIAREN ARTEAN

Xose-Henrique Costas Gonzalez

Galizierako Filologian katedraduna, Vigoko Unibertsitatea.

Helbide elektronikoa: xcostas@uvigo.es

"...lau mende iragan dira zuen politika asimilatzailea era guztietako maltzurkeriaz eta bortxakeriaz erabiltzen hasi zinetenetik, eta, hala ere, gure hizkuntzak bizirik dirau. Beraz, porrot egin duten inperialista batzuk zarete".

Afonso D.R. Castelao, *Sempre en Galiza*.

SARRERA

Galiziera hizkuntza ibero-erromaniko bat da, hainbat hizkuntza zeltaren eta latin arruntaren artean azken hori gainjartzetik jaioa, penintsulako ipar-mendebaldeko koadrantean. Galiziako nazionalitate historikoan, Asturiaseko mendebaldean (Eo eta Navia ibaien artean), Leongo mendebaldeko Bierzon eta Zamorako ipar-mendebaldean galiziera erabiltzen duten hiztun guztiak batzen baditugu, gaur egun bi milioi lagunek baino gehiagok hitz egiten dute galiziera. Caceresko¹ ipar-mendebaldeko hiru udalerritan bizirik eusten diote galizieraren halako aldaera arkaizante bati, eta bost mila lagun inguruk hitz egiten dute. Horrez gain, Galiziako milioi erdi emigrantek baino gehiagok beren berezko hizkuntza hitz egiten jarraitzen dute sendi-mailan Espainiako estatuko beste herri jakin batzuetan eta Amerikako zein Europako abegi-herrietan.

Iraganean bizi izan zuen Erdi Aroko urrezko garaia ostean (orduan Galizian hitz egiten zen hizkuntza bakarra izan ez ezik, latin idatzia erabilera ere partekatu baitzuen mota guztietako agirietan —literatura, zientzia, historia, administrazioa eta notariotza, eta abar—), Galiziako erreinua Gaztelako erreinuak (geroko Espainiak) xurgatu zuenean,

azken horren politika asimilatzailea lekua galtzen eta gaztelania galiziera ordezkatzan hasi zen erabilera ofizialetan. XV-XVIII. mendeetan zehar Gaztelaren zerbitzura bizi ziren atzerriko eliteek tokiko agintarien (noblezia, Elizako goi-hierarkia, justizia, etab.) eginkizunak bereganatu zituztenean, galiziera makalaldian sartu eta jende xehearen artera baztertu zen zeharo: nekazariak, artisauak eta arrantzaleak, herritar eskolagabeak, eta ekonomia, gizarte, kultura edo prestigioaren mailan inolako botererik ezagutzen ez zutenak². Mende horiek “Séculos Escuros” deiturikoak dira Galizian.

XIX. mendean eta XX. mendearen tarte luze batean zehar gaztelania izan zen hizkuntza ofizial bakarra; baina, ohikotasunez, soil-soilik atzerriko gutxiengoak eta jatorri oneko galiziar talde asimilatu batek erabiltzen zuten.

XX. mendean, ordea, abiada bizian sartu ziren aldaketa demolinguistikoak. 1900. urtean nekazaritzan eta arrantzan zebiltzan galiziar kopurua %86 zen, denak galiziar elebakarrak. 2000. urtean, berriz, %19 baino ez. Frankismoaren garaian, galiziera erabiltzen zuten hiztunen beherakada nabarmena gertatu zen, besteak beste, emigrazioaren, industrializazioaren, hiriaren exodoaren, hezkuntzako edozein mailatan gaztelaniak zuen nagusitasunaren, komunikabideak zabaltzearen edo politika-errepresioaren eraginez; eta, ondorioz, gaztelaniak sekulako gorakada izan zuen gizarte-maila eta habitat guztietan.

Hala ere, XX. mende horretan galiziera bultzatzeko urrats garrantzitsuak ere egin ziren (Galizieraren Errege Akademia sortu zen 1906an; Hizkuntzaren Anaidiak 1916an; Alderdi *Galeguista* 1931n; Autonomia Estatutuak onartu ziren 1936an, bertan ere galizieraren koofizialtasuna baieztatuz, etab.); baina 1936ko kolpe faxistak, ondorengo 40 urteetako errepresioak, eta hizkuntzalaritza gaietan ezer gutxi edo ezer ez konprometitutako autonomia-gobernuen 30 urteak oso kolpe latzak izan ziren galizierarentzat; eta, oraindik ere, kostatuko zaio guztiz suspertzea.

Horrela, 2004ko *Galiziako Mapa Soziolinguistikoa*³ ematen dituen datuen haritik, 1877 eta 1974 urteen arteko belaunaldietan 70,8 puntuko beherakada gertatu zen galiziera soilik hitz egiten zuten hiztunen erabileran; eta, aldi berean, bi hizkuntzaren erabilerak 51,1 puntuko gorakada izan zuen.

II. GALIZIERAREN GAUR EGUNGO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

1. Legezko esparru orokorra

1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera, gaztelania da Estatuko hizkuntza ofiziala eta espainiar guztiek dute hura ezagutzeko beharra. Galiziako Autonomia Estatuan (1981) eta Hizkuntza Normalizaziorako Legean (1983) oinarri-oinarritzko ezberdintasun konstituzionala ezarri zen,

1900. urtean nekazaritzan eta arrantzan zebiltzan galiziar kopurua %86 zen, denak galiziar elebakarrak. 2000. urtean, berriz, %19 baino ez.

Azken hamarkadetan eguneroko bizitzaren esparru askotan, hala nola esparru kulturalen zein politikoan, galiziera gaztelaniaren lekua irabazten ari da apurka-apurka.

Galizieraren erabilera handiak habitatarekin (landa-eremuak eta eremu erdi-landakoak) eta adinarekin (helduak eta adinekoak) du erlazioa.

aukera-berdintasunean ezin izan zelako ezarri galiziera ere nahitaez eza-gutzeko beharra (Konstituzio Auzitegiak inkonstituzionala dela dio, 1986/06/26an emandako epaiaren arabera). Galiziako hizkuntza-araudi guztiz eskasak eta plangintza-estrategia ofizialaren gabeziak eraginda, ofizialtasunak ezarritako betebeharrak betetzen ez direla hamarkadak igaro diren honetan, Galiziako Parlamentuak 2005eko urtarilaren 25ean aho batez onartu zuen *Plan Xeral de Normalización Lingüística de Galicia* izenaz ezagutzen dena⁴. Bestalde, 2001ean Espainiak Europako Kontseiluaren Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Ituna sinatu eta berretsi zuen, eta horko testu hori Espainiako araudi konstituzionalaren eremuan dago autonomia-estatutuak dauden maila berean; hala ere, Espainiako zein Erkidegoko gobernuak ez dute aintzat hartzen, 2005eko eta 2008ko Europako Kontseiluaren Adituen Komiteak egindako txostenek agerian uzten duten gisan⁵.

2. Galizierak gutxienekoaren azpitik eusten dio bere erabilerari

Oso zabaldua zen topikoaren arabera, galiziera lehen mailako ahozko komunitatearen erabilerarako baino ez zen egokia (familia, herrikoak, eta abar). Gaztelania, ordea, *hizkuntza* zen, Galizian bertan indar handia hartu zuten kanpoko botereek eta Galizian asimilatuak zeuden komunikabideen botereek hala nahi zutelako. Zorionez, joera horiek nabarmen aldatu dira azken hamarkadetan, eta eguneroko bizitzaren esparru askotan, hala nola esparru kulturalen zein politikoan, galiziera gaztelaniaren lekua irabazten ari da apurka-apurka.

Hala ere *Galiziako Mapa Soziolinguistikokoaren* analisi gehienak kezkarriak dira, oso gutxi dira itxaropentsuak. Datu horien arabera, 65 urtetik gorakoek %82ak lehenengo hizkuntza galiziera izan zuen; baina ehuneko horrek nabarmen egiten du behera 20 urtetik azpikoen artean, eta hor %35ak baino ez du galiziera lehenengo hizkuntza. Galizieraren erabilera handiak habitatarekin (landa-eremuak eta eremu erdi-landakoak) eta adinarekin (helduak eta adinekoak) du erlazioa. Galiziako gazteek askoz hobeto menperatzen dituzte molde linguistikoak nagusiek baino, batez ere molde pasiboak, baina galiziera gutxiago erabiltzen dute eta hizkuntzaren kalitatea ere baxuagoa da haiengan; horrek argi uzten du galiziera ez erabiltzearen aldeko inertzia oraindik ere nagusi dela Galizian.

Hurrengo taulan (Galiziako Estatistika Institutuaren datuaren arabera egindakoa) ikusten da 45 urtetik azpikoak partzialki galizieraz eskolatuak izan zirela; hala ere, eskolak ezin izan du galiziera erabiltzen duten hiltun kopuruaren beherakada gelditu edota moteldu, ezta beste garai batzuetatik jasotako Galiziako berezko hizkuntzari buruzko aurreiritzi negatiboak ere.

	Beti galizieraz	Batzuetan galizieraz	Sekula ez galizieraz
5 eta 10 urte bitartekoak	%37,63	%47,77	%12,86
20 eta 24 urte bitartekoak	%45,82	%37,15	%17,01
40 eta 44 urte bitartekoak	%54,43	%31,70	%13,85
60 eta 64 urte bitartekoak	%69,94	%20,61	%9,43

Hiri-eremuetan, galizieraren erabilera ikaragarri jaisten da gazteen artean (5 eta 10 urte bitartekoak): %5,14 Coruñan edo %6,29 Vigon. Baina, adin-tarte berean, ahozko ulermenari dagozkion ehunekoak oso altuak dira: %97,94 Coruñan eta %98,27 Vigon. Gizarte-mailan eta hiri-eremuetan gora egiten dugun heinean, hitz egiteko gaitasunak behera egiten duela diote estatistika guztiak; eta, alderantziz, irakurtzeko gaitasunak eta are gehiago idazteko gaitasunak, behera egiten dute gizarte-mailan eta landa-eremuetan behera goazen heinean.

2001eko Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera⁶, garai hartan 1.470.836 galiziarrek (%54,84ak) beti erabiltzen zuten galegoa, 783.780k (%30,29ak) batzuetan erabiltzen zuten, eta Galizian bizi ziren 332.791 lagunek (%12,8ak) ez zuten sekula erabiltzen⁷. Institutu horren arabera, 2001ean, Asturiasen bizi ziren bizilagunen %6ak bere burua galiziera-hiztuntzat aitortzen zuen; hau da, guztira 64.425 lagun, haietatik 40.000 inguru Asturiaseko mendebaldekoak eta, gainerakoak, Astuaria-sera emigratutako galiziarrek.

2008ko Galiziako hauteskundeetan, Ikerketa Soziologikoen Zentroak⁸ galiziarren hizkuntza-profilari buruzko inkesta bat egin zuen. Inkesta horren datuen arabera, galiziera ez zutela ulertzen zioten galiziarren kopurua %2,9raino jaitsi zen; baina, aldi berean, galizieraren erabilera ere asko jaitsi zen, 1991n galiziera etxeko hizkuntza zuen %62,4tik gaur egungo %56ra, hain zuzen. Inkestak beste datu interesgarri bat erakusten digu, hots, familia elebidunen kopurua jaitsi egin da, eta familia erdaldunen kopuruak gora egin du, %25,6tik %33ra hain zuzen ere.

Horren guztiaren ondorioz, eta sektoreka banatu eta segidan eman-go ditugun datuak ere kontuan hartuta, galiziera indar handiz barneratu bada ere kultura, politika eta antzeko sektore ofizialetan, sendi-eremuan oraindik ere atzera egiten duela esan dezakegu, eta hiriguneetako erdi-eta goi-mailako klaseetako haur- eta gazte-eremuetan garrantzirik gabekoa dela ia-ia. Galiziako Xuntan izan diren gobernu ezberdinek egindako hizkuntza-politika gogogabeak (galizierarekiko beligerantea ez esateagatik, gaur egun gertatzen den bezala) "galizieraren eta gaztelaniaren arteko bizikidetza elebiduna" bultzatu du; baina galizieraren erabilerari eragozpenak eta trabak baino ez dizkio ipini eta, erabilerari dagokionez, egoera kaotikoa sortu du eta ez ditu betiko aurreiritziak baztertu. Horren

Gizarte-mailan eta hiri-eremuetan gora egiten dugun heinean, hitz egiteko gaitasunak behera egiten duela diote estatistika guztiak; eta, alderantziz, irakurtzeko gaitasunak eta are gehiago idazteko gaitasunak, behera egiten dute gizarte-mailan eta landa-eremuetan behera goazen heinean.

Galizian 1990-2010 hamarkadan ezarri zen hizkuntza-politikak izugarrizko kontraesanak islatzen ditu.

Gehien erabiltzen diren idazkiak galizieraz idazten dira administrazio ia guztietan; eta administrazioan kopurua zertxobait jaisten bada ere, tokian tokiko eta erkidegoko administrazioari langileen artean galegoa omen da mintzatzeko hizkuntza erabilienera.

adibide bikaina da enpresa askorekin gertatutakoa: Xuntak etiketak galizieraz egiteko diru-laguntza eman zien eta, gero, etiketak gaztelaniaz *ere* ez jartzeagatik zigortu egin zituen; edota beste adibide on bat dira erregistroan eta notariotzan galiziera erabiltzeko kanpaina ofizial oso garestiak, agiriak galizieraz egiteko prest dauden notarioak eta erregistratzaileak topatzea oraindik orain oso zaila baita Galiziako hiri askotan.

Galizian 1990-2010 hamarkadan ezarri zen hizkuntza-politikak izugarritzko kontraesanak islatzen ditu. Horrela, nonbait aurrera egiten denean, beste nonbait atzera egiten da, hurrengo urtean txikitu egiten da aurreko urtean hobetutakoa, eta joera ziklikoa da gainera; aurrera egiten den urrats bakoitza gizartearen zati handi batek urteetan egin duen lanaren emaitza da; atzera behartzen gaituen urrats bakoitzak, berriz, hilabete pare bateko zalaparta komunikabideetan eta legezko neurri atzerakoiak baino ez ditu eragiten; hala gertatu zaigu azken bi urteotan, hain zuzen ere PPK Galizian berriz gobernu osoa zuenetik. Lege-babesle guztiak, diru-laguntza guztiak, dekretu guztiak edo gizarte zibileko alderdi oso dinamiko batek eragindako aurrerapen partzial guztiak kontuan hartuta ere, galizieraren osasun soziala ez da ona, eta une honetan egoera larrian dago. Baina hor ere kontraesana sortzen da; izan ere, Galiziako gizartearen zati handi baten jarrera aldatu egin da eta, urteak lo eman ondoren, esnatu egin da egungo gobernuak erabaki izan dituen eta erabakitzen dituen politika atzerakoien aurka.

3. Galiziera administrazioan eta justizian

Estatutuek (1981) eta Administrazioaren Jardunbideari Buruzko Legeak (1999) adierazten dutenaren arabera, gehien erabiltzen diren idazkiak galizieraz idazten dira administrazio ia guztietan; eta administrazioan kopurua zertxobait jaisten bada ere, tokian tokiko eta erkidegoko administrazioari langileen artean galegoa omen da mintzatzeko hizkuntza erabilienera.

Tokian tokiko erakundeek galiziera hizkuntza ofizialtzat erabiltzeari buruzko Legean (1988), bakar-bakarrik galiziera edo lehentasunez galiziera erabiltzeko agintzen da, era guztietako agirietan erabiltzeko hizkuntzen artean; eta galiziera nahitaez ezagutzea ere bai, administrazioan lan egitera iritsi ahal izateko.

Justizia-administrazioak, ordea, ez du galizieraren erabilera onartu nahi. Galiziera jakitea meritutzat jotzen da karrera judizialean, baina ez dago nahitaez jakin beharrik Galizian lan egin nahi bada, “alde batera utzi daitekeen apaingarria” besterik ez da. Galizieraren gaitasun-agiria edukitzeak lekualdatze-lehiaketetarako deialdietan parte hartu nahi denean baino ez du balio. Galiziera ez da maila berean erabiltzen epaitegi guztietan, norbanakoaren borondatearen arabera erabili ohi da, egoera horretan guztian ez baitago inolako plangintzarik eta funtzionarioek erabiltzen dituzten programa informatikoez ere ez baitute galiziera modu

duinean erabiltzeko aukerarik ematen. Galizian, galiziera hutsez emandako epaiak %3 besterik ez dira.

Estatuko administrazio periferikoan eta administrazio militarrean, hutsaren hurrengoa da ia-ia galizieraren erabilera; izan ere, komunikazio-hizkuntza nagusia gaztelania izan ez ezik, administratzaileek ondo baino hobeto dakite administrazio horietara zuzendutako agiriak galizieraz idatzita badaude, berandu begiratzen eta izapidetzen direla, atzera botatzen ez badituzte behintzat.

PPren gobernu berriak, 2008/03/1eko hauteskontzietatik ateratakoak hain zuzen, martxoko 1/2008 dekretu bidez onartutako Galiziako Funtzio Publikoari buruzko 35. artikulua aldatu zuen, funtzionarioei galizieraren ezauguera-mailan baldintzak arintzeko asmo bakarrarekin: *para facilitar la movilidad por todo el territorio nacional (español) y evitar las barreras lingüísticas (sic)*. Horrela, iaiztik, Galizian posible da funtzionario izatea galiziera jakin gabe; horrek modu larrian gutxitzen ditu galiziera erabiltzen duten hiztunen eskubideak.

4. Galiziera kulturean

Galizieraren erabilera gehien sendotu duena kultura idatziaren mundua izan dela esan daiteke. Hala ere, Galiziako argitaletxeek gorabehera handiak dituzte aurrera egiteko orduan, diru-laguntzekiko eta hezkuntzaren munduarekiko duten mendekotasuna dela eta.

Galiziako Telebistaren (TVG) sorrera funtsezkoa izan zen gero eta indar handiagoz osatzen ari den galiziar ikus-entzunezko sektorea dinamizatzeke; eta bertan egin diren ekoizpenak kalitate eta arrakasta handikoak izan ez ezik, hizkuntzaren duintasuna eta prestigioa ere zabaldu dute. Tesuinguru horretan, lanerako aukera asko eta asko sortu dira (aktoreak, gidoilariak, bikoiztaileak, etab.), eta komunikazio-hizkuntza gisa galiziera erabiltzen da beti. Antzerkian ere, antzerki-talde profesionalek eta amateurrek galiziera erabiltzen dute ohikotasunez beren antzezlanetan.

Musikaren eremuan, aipatzekoa da hainbat estilotako (rock, “rock bravú”, folk, zelta, etab.) talde berri asko sortu direla; baina, beste musika mota eta estilo batzuetan (jazz, pop, rap, klasikoa, etab.), oso gutxi dira galizieraz egindako musika-ekoizpenak. Galizian galizieraz egindako musikaren produkzio-etxe / banatzaile handi baten falta sumatzen da; baita babes handiagoa ere erakundeen eta komunikabideen aldetik, gehienak atzerriko ekoizpenak egiten ari baitira buru-belarri, galizierazko ekoizpenak nahita baztertuz.

5. Galiziera lan- eta enpresa-munduan

Lan-munduan ia beti eta nagusiki galiziera erabiltzen zen; baina, gaur egun, haren erabilera jardunaren, lanpostuaren, ikasketa-mailaren, edo

Justizia-administrazioak, ordea, ez du galizieraren erabilera onartu nahi. Galiziera jakitea meritutzat jotzen da karrera judizialean, baina ez dago nahitaez jakin beharrik Galizian lan egin nahi bada.

***Iaztik, Galizian posible
da funtzionario izatea
galiziera jakin gabe;
horrek modu larrian
gutxitzen ditu galiziera
erabiltzen duten hiztunen
eskubideak.***

***Galizieraren erabilera
gehien sendotu duena
kultura idatziaren
mundua izan dela esan
daiteke.***

sexuaren arabera da, besteak beste. Galiziera nahitaez jakitea eskatzen edo saritzen duten enpresak oso gutxi dira (hizkuntza-zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresak baino ez; komunikabideak, zenbait herri-administrazio, etab.). Enpresa pribatuaren munduan, galizieraren erabilera egoeraren arabera da, ohituraren edo joeraren emaitza, nagusi edo buru den batekin izan ezik (kasu horretan, gaztelaniaz bakarrik hitz egiten baitzaio). Lan-hitzarmenetan ere ez da ezartzen langileen hizkuntza-eskubideei buruzko klausularik.

Enpresariak beren lan-eremuan galizierarekiko duten jarrera, dudarik gabe, axolagabea da guztiz. Oro har, ez daude enpresetan galiziera erabiltzearen aurka, baina gaztelania erabiltzen jarraitzen dute inertzia hutsez, zorrotik diru asko atera behar dutelako haien enpresak galizierara egokitzeko; ez daude horretarako prest, ez dakitelako argi zein den horrek ekar dezakeen onura ekonomikoa, eta ahaztu egiten dute kontsumitzaileen bi herenak galiziera dutela eguneroko hizkuntza.

1995ean egindako ikerketa batek⁹ argi erakutsi zuen publizitatea edo etiketak galizieraz egiten dituzten produktuek herritarren atxikimendua pizten dutela, baita erdal hiztunez osatutako sektore handietan ere. Galizieraz lan egiten duten enpresek badakite horrek zenbateko eragina duen beren onuretan; baina oztopatu egiten da enpresak benetan galizieratzea, inertzien, beldurren, erakundeen aldetik jasotzen den laguntza eta informazio urriaren, enpresari jakin batzuen kontrako ideologiaren eta beste hizkuntza-eremuetara zabaltzen diren harremanen ondorioz.

Portugalen edo Katalunian dauden galiziar enpresa askok, ordea, espero izatekoa denez, portugesa edo katalana erabiltzen dute; baina sekula ez dute galiziera erabiltzen Galizian bertan.

6. Galiziera komunikabideetan

Demokraziaren lehenengo urteetako aurrerapauso txikien ondoren, nabarmen jaitsi da galizieraren erabilera komunikabide idatzietan eta ikus-entzunezkoetan. Galiziako Xuntak diru-laguntzak ematen dituen arren erdal komunikabideek galizieraz hainbat orrialde edota gehigarri argitara ditzaten, egia esatera, aurrerapen gutxi edo bat ere ez da egin bide horretan. Galiziera %5ean erabiltzen da, batez ere iritzi-artikuluetan eta kultura-albisteeetan. Galizieraz sortutako albisteen itzulpena (politikoen, profesionalen, erakundeen eta jende arruntaren adierazpenak, prentsa-komunikatuak, etab.) jarduera arrunta da oraindik Galiziako egunkarietan; eta, ondorioz, Galizia da munduko leku bakarra gaztelaniaz sekula mintzatu ez den edota sekula mintzatuko ez den jendea gaztelaniaz “mintzatzen dena”.

Galizian bi egunkari argitaratzen dira galiziera hutsean, *Galicia Hoxe* eta *De luns a venres* (doakoa); beste bat elebiduna da, *Xornal de Galicia*; eta gainerako guztiak gaztelaniaz argitaratzen dira, hori bai, galizierari leku txo bat eginez noizean behin, kultura- edo eskola-gehigarrietan. Bestela,

herri edo eskualdetako aldizkari, astekari eta hamabostekari ia guztiak galizieraz egiten dira.

Erkidegoko telebista eta irratia sortzea (RG, TVG eta G2) oinarritzko aurrerapausoa izan zen ikus-entzunezkoen munduan, galizieraren normalizazio-prozesua indar handiz sustatu zutelako, galiziera era guztietako gaiak eta egoerak lantzeko hizkuntza “moderno” bat dela erakutsiz. TVG, G2 eta RG, hiru horietatik kanpo, soilik RNEk erkidegorako prestatzen duen programazioa eta hainbat herri-irradi izaten dira elebakar edo nagusiki galizieraz; izan ere, Espainiako komunikabideetan galizieraren erabilerari ez zaio inolako arretarik eskaintzen, eta azken urteotan gainera —“herrialderako” egiten diren deskonexioetan— ospe handiko galiziar hitzunak ere gaztelaniaz elkarriketatzen hasi dira.

Balio sozialak, kulturalak eta linguistikoak gizarteratzeko orduan, tresna oso boteretsuak dira komunikabideak; horregatik, bereziki larria da herrialdeari buruz ematen duten irudi linguistikoa. Galiziako Xuntak irrati-eta telebista-baimenak eman zizkien enpresa-taldee hainbat lehiaketaren bidez, baina baldintza batekin: programazioaren erdia gutxienez galizieraz eman zedila. Gero, baimen gehienak gaztelaniaz azaltzen diren Espainiako kate handiei saldu zitzaizkien. Orain dela urtebete erkidegoko baimena jaso zuten bi telebista digitaletan (Popular-TV-Galicia eta Voz-TV), programazioaren %10 baino gutxiago ematen dute galizieraz, baimenaren baldintza-agirien arabera gutxienez %50a emateko konpromisoa hartu bazuten ere. Komunikabide berriak sartu dira sarean, galiziera darabiltenak edo elebidunak direnak (xornal.com, galiciainconfidencial.com, mundogaliza.com, etab.).

Feijoo presidentearen egungo gobernua etengabe saiatzen da galizierazko prentsa ekonomikoki itotzen eta, horren ondorioz, desagertu egin dira *A Nosa Terra* ehun urtetik gorako paperezko edizioa edo *vieiros.com* historiko digitala. Ia-ia gaztelania hutsezko prentsak, ordea, sekulako diru-laguntzak jasotzen jarraitzen du “galiziera bultzatzeko”.

7. Hezkuntza galizieraz

Galizian, Euskadin ez bezala, hizkuntza-eredu bakarra dago eskola-sistema guztiarentzat. Manuel Fragaren gobernuetan (2004ra arte), sistema horri “elebitasun armoniatsua” esaten zitzaion modu eufemistikoan. 135/1983ko Dekretuan oso azaletik azpimarratzen zen bi hizkuntza ofizialen arteko oreka gorde behar hori; 247/1995ko Dekretuan, galizieraz bakarrik eman behar ziren irakasgaien gutxieneko herena arautzen zen. 124/2007ko Dekretuak, PSOE-BNG alderdi biak gobernuan zeudela, aurrerapauso handia ekarri zuen; izan ere, bertan arautzen ziren galizieraz bakarrik eman beharreko irakasgaiak gutxienez %50a osatzen baitzuten.

Garai horretan guztian zehar, hezkuntzan galizieraren erabilerari buruzko dekretuen eta arauen ezaugarriak bi izan ziren; a) aurrerakortasuna, galizieraren presentzia pixkanaka-pixkanaka handitzen joan zen; b)

Enpresa pribatuaren munduan, galizieraren erabilera egoeraren arabera da, ohituraren edo joeraren emaitza, nagusi edo buru den batekin izan ezik (kasu horretan, gaztelaniaz bakarrik hitz egiten baitzaio).

***Galiziera %5ean
erabiltzen da, batez ere
iritzi-artikuluetan eta
kultura-albisteetan.
Erkidegoko telebista eta
irratia sortzea oinarritzko
aurrerapausoa izan zen,
galizieraren
normalizazio-prozesua
indar handiz sustatu
zutelako, galiziera era
guztietako gaiak eta
egoerak lantzeko
hizkuntza “moderno” bat
dela erakutsiz.***

eskola pribatu gehienek ez zituzten dekretu horiek betetzen, hezkuntza-agintarien konplizitatearekin edo tolerantziarekin. Azken arrazoi horren haritik, ulertzekoa da hirietako gazteen %20ak galizieraz moldatzeko ezgauza zela aitortu izana, nahiz eta beren eskola-curriculumean galiziera ere sartu den. Egia esatera, urtero irakasgai bakarra edo bi baino ez zituzten jasoko beren formazioaren ibilbidean, eta horrek modu larrian urratzen du hezkuntzaren helburu estrategikoetako bat Galizian eta Espainian: derrigorrezko eskolatzea amaitzean, ikasleak galiziera eta gaztelania modu praktikoan ezagutu behar dituela.

Galiziako Mapa Soziolinguistikoak ematen dituen datuen arabera, herri-tarren %5,5ak soilik ikasi zuen galiziera eskolan, baina ehuneko horrek %23raino egiten du gora 25 urtetik azpiko hiriko eta erdi- eta goi-maila-ko klaseetako gazteen artean.

79/2010eko Dekretua, Galiziako gobernu berriak bultzatutakoa, guztiz ilegala izan ez ezik¹⁰, atzerapauso larria ere bada hezkuntza galizieratzeko asmoan; besteak beste, arrazoi hauengatik: galizieraren presentzia %33ra jaisten duelako (aurrerakortasunaren agindua urratuz), lehen hezkuntza galizieraz —hala nahi duenarentzat— jasotzeko eskubidea bermatzen ez duelako¹¹, Galiziako Hizkuntza Normalizaziorako Legean eta Europako Kontseiluaren Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Itunean ezartzen den diskriminazio positiboari buruzko legezko agindua aintzat hartzen ez duelako, irakaskuntza ematen den hizkuntza ez erabiltzeko aukera uzten dielako ikasleei, teknologiari eta zientziari buruzko irakasgaiak gaztelaniaz emateko gordetzen dituelako, etab. Labur esanda: berdintzat tratatzen ditu zeharo desberdinak diren kasuak, eta horrela ez da sekula lortuko desiragarri bihurtu den hizkuntzen arteko orekarik, ezta berdintasunik ere.

Ikasketa ez-unibertsitarioetan galizieraren derrigorrezko ezaguera eskatzen zaie irakasleei, baina unibertsitatean ez da halakorik gertatzen, eta han kanpokoak diren irakasleen ehunekoa askoz ere handiagoa da. Galiziako unibertsitatean galiziera hizkuntza ofizial nagusia da, eta erabiltzen da errotulazioak eta agiriak egiterakoan edo barne- zein kanpo-harremanetan, besteak beste. Esparru humanistikoaren eta juridiko-sozialaren barruan galizieraren erabilera altua da irakaskuntzan, baina eskasa teknologiaren eta osasunaren esparruetan; eta bi eremu horien artean kulunka dabil galiziera.

Laburtzeko, unibertsitateko ikasleen %31k ohikotasunez erabiltzen du galiziera, baina %83ak inolako eragozpenik gabe hitz egin dezake. Ikasleen %55ak badaki galizieraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten, baina galizieraz ematen diren irakasgaiak %20 izatera ere ez dira iristen. Galizieraren aldeko jarrerak oso baikorrak dira unibertsitatearen testuinguruan, baina aurreko hezkuntza-mailetatik jaso ohi diren gaztelaniaren aldeko joerak aldatzen ez diren bitartean, hizkuntza-oreka egitasmo uto-pikoa izango da, oraindik, eremu horretan.

III. AZKENIK (GABE)

Galizierak bizi dituen gudu-zelaiaren gainetik modu telegrafikoan egin dugun errepasoaren ostean, egoera hori ikusita, euskal begirale batek landu dezakeen iritzia ez da baikorregia izango ziurrenik, eta itxura txarra hartuko dio, orain arte ez baita kontrakoa pentsatzeko inolako borondate politikorik agertu, ez gizarte-dinamismorik antolatu, ez plangintza seriorik egin; eta galizierak hiztunak galtzen jarraitzen du.

Hala ere altua da oraindik galiziera erabiltzen duten hiztunen kopurua, adineko hiztunak batez ere. Baina gazteen artean galizierak duen hiztunen kopurua ere handia da; gauza dira linguistikoki, baina lo dau-de eta esnatu egin behar dira, lagundu egin behar zaie; eta nola egin, bada, besteak beste, lan egin ahal izateko, haien gizarteratzea bultzatzeko, haien arteko harremanetarako, ikasteko eta legearen babesa edukitze-ko baliabide eta baldintza egokiak haiei eskainiz, horrela egun duten eta ona den beren ezaguera-maila sustatzeko. Eta kulturen zein politikan sektore-jabea ere bada galiziera; gutxiengoan dauden sektoreak dira, baina bizitasuna eta gogoia kutsatzeko gaitasun handikoak ere bai, eta elebarkartasunean erreferentzia gisa jarduten dute. Asko dago oraindik borrokatzeko, eta handia da gainditu beharreko inertzia.

Galiziatik kanpo hitz egiten den galizieraren egoera, berriz, askoz ere petralagoa da; eta hala izaten jarraituko du Espainiak euskara, galiziera eta katalana bospasei nazionalitatearen edo erkidegoren barruan legalki “zokoratzen” dituen bitartean, edo haiek kontuan hartu gabe segitzen badu beste horrenbestean. Horretarako, Europako Kontseiluaren Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Itunak dioena zuzentasunez beteko balitz, lehen urrats ederra egingo litzateke. Beste urrats bat litzateke, oinarrikoa hori ere, erreinuaren hiriburuko komunikabide ahalguztidunak hizkuntza-aniztasunari buruz ari direnean sentsibilizazioaren eta hezkuntzaren aldeko mezu gehiago erabiltzea, pedagogiazko eta gizarte-heziketazko injekzio bat, hori ere guztiz beharrezkoa. Baina horren guztiaren alde egin beharrean, kontrako bidea hartzen da gero eta gehiago.

*Euromosaic*¹² izeneko txostenak onartzen du galiziera sorleku duen lurraldean gehiengoak erabiltzen duen hizkuntza dela. Europako Batzordearen aginduz egin den txosten horretan, Batasuneko 48 hizkuntza “gutxituen” zazpi parametro konparatzen dira, eta galiziera luxemburgarraren, Belgikako eta Italiako alemaniarren eta Kataluniako katalanaren atzetik ageri da.

Azken 20 urtean, Galiziako gizarte-sektore arduratsuenak ahalegin- du dira galizieratzearen kontrako inertzia historikoen eta frankismo garaian bizi-bizi areagotu eta autonomia garaian zuzendu ez ziren aurreiritzien aurrera egitea oztopatzen. Aldi berean fina eta birrintzailea zen etsai baten kontra ari ziren: galiziar askorengan beren buruaren kontra piztu zen gorrotoa, PPK eztabaida politikoaren muinean hizkuntzaren gaia jarri zuenean; 2008ko hauteskunde autonomikoetan hain zuzen, eta,

Eguno gobernuaren etengabe saiatzen da galizierazko prentsa ekonomikoki itotzen eta.

Ia-ia gaztelania hutsezko prentsak, ordea, sekulako diru-laguntzak jasotzen jarraitzen du “galiziera bultzatzeko”.

Herritarren %5,5ak soilik ikasi zuen galiziera eskolan, baina ehuneko horrek %23raino egiten du gora 25 urtetik azpiko hiriko eta erdi- eta goimailako klaseetako gazteen artean.

79/2010eko Dekretua, atzerapauso larria ere bada hezkuntza galizieratzeko asmoan.

batez ere, ordura arte bazegoelako adostasun politiko eta soziala gai horren inguruan eta inork ez zuelako hori zalantzan jarri inongo hauteskunde kanpainatan.

FAES laborategietan landu ziren zentralizazio berriaren aldeko aginduei men eginez, PPK galizierari buruzko gezur eta aurreiritzi ideologikoak zabaltzen eman zuen kanpaina osoa¹³ (“galiziera inposatu nahi digute”, “gaztelania garbitu nahi dute Galizian”, “galiziera ez jakiteko eskubidea daukagu”, “galizierak ez du kanpoan balio”), eta ez ziren falta izan Madrilgo militanteen konplizitatea eta laguntza (ABC, La Razón, El Mundo, Intereconomía, COPE, Veo), baita Galiziakoena ere (La Voz de Galicia). Gezur horien eragina hautesleriaren %0,6an besterik sumatu ez bazen ere, balio izan zuten legealdi honetan zehar PPK onartu dituen galizieraren kontrako neurri atzerakoi eta erasotzaileak justifikatzeko; horretarako giro soziopolitiko aproposena sortzeko bai behintzat. Horrela, birzentralizazio linguistikoaren (eta ideologikoaren) laborategi bihurtu da Galizia, eta PPren mehatxua da eredu hori bera ahal bezain laster esportatuko duela Valentziara eta Balear Uharteetara, autonomia-erkidego horietan gobernuak osatzea lortzen duenean.

Guzti-guztia kontraesankorra denez Galizian, hizkuntzaren aurkako eraso horiek bihotzean hunkitu dituzte baita PPren jabego izan ohi diren nekazaritza-sektore galegista txikiak ere; eta gainerako gizarte-mugimenduekin eta indar politikoekin batera atera dira Galiziako gobernuaren “kontraerreforma” linguistikoaren kontra protesta egiteko orain arte deitu diren bost manifestazio jendetsuetan. Irakasleek eta intelektualek manifestuak egin dituzte, hizkuntzaren aldeko hainbat plataforma sortu dira (*Queremos Galego*, *ProLingua*, *Patrimonio da Humanidade*, etab.), irakasleen, sindikatuen eta alderdi politikoen koordinakundeak berrantolatu egin dira, baita elkarte mugimendu guztia ere, etab. Konturatzen hasi dira neurri horien ahalmen erasotzailea ez dutela behar bezala kalkulatu, herriak berezkoa duen hizkuntzaren aurkako kanpaina ankerraren jakitun dela gizartea, galiziar ororentzat ez baitago bere hizkuntza baino nortasun-marka handiagorik Galizian. Izan ere, Castelaok zionez: “se aínda somos galegos é por obra e gracia do idioma” (“oraindik ere galiziarrek bagara, hizkuntzaren egintza eta graziari esker da”).■

BIBLIOGRAFIA

- Europako Kontseilua (1992): *Eskualdeetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen Europako Ituna*. Begiratu: www.avogacia.org/web/article.php?id_article=123
- Europako Kontseilua (2005): *Informe del Comité de Expertos sobre la aplicación en España de la Carta Europea de las Lenguas Regionales y Minoritarias* (2005/09/21). Begiratu: http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/EvaluationReports/SpainECRML2_es.pdf

Europako Kontseilua (2008): *Informe del Comité de Expertos sobre la aplicación en España de la Carta Europea de las Lenguas Regionales y Minoritarias* (2008/12/11). Begiratu: http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/local_and_regional_democracy/regional_or_minority_languages/2_monitoring/2.3_Committee_of_Experts%27_Reports/Spain_1st_report_esp.pdf

Costas Gonzalez, X.H. (koord.) (2010a): *55 mentiras sobre a lingua galega*. Ames: Laiovento.

Costas Gonzalez, X.H. (2010b): *A lingua galega no Eo-Navia, Bierzo occidental, As Portelas e Calabor e o Val do Ellas: historia, breve caracterización e situación sociolingüística actual*. Coruña: Galizieraren Errege Akademia (prentsan).

Lopez Muñoz, D eta Garcia Cendan, B. (2003): *Receptividade da lingua galega na liturxia*. Santiago: Consello da Cultura Galega.

Mariño Paz, R. (1998): *Historia da lingua galega*. Santiago Konpostelakoa: Sotelo-Blanco Edicións.

Monteagudo Romero, H. (1999): *Historia social da lingua galega. Idioma, sociedade e cultura a través do tempo*. Vigo: Galaxia.

Monteagudo, H. eta Bouzada, X. (2002-2004): *O proceso de normalización da lingua galega*. I. Política lingüística: análise e perspectivas (2002), II. Educación (2003), III. Elaboración e difusión da lingua. Santiago Konpostelakoa: Consello da Cultura Galega.

Nelde, P., Strubell, M. y Williams, G. (1997): *Euromosaic*. Santiago Konpostelakoa: CILRP (begiratu: www.uoc.edu/euromosaic)

Parajó Calvo, M., eta Costas Gonzalez, X.H. (2001): "Posibilidades legais de equilibrio lingüístico no Bierzo Occidental e As Portelas. Breve referencia á Terra Eo-Navia e ó Val do Ellas", *A Trabe de Ouro*, 47. zk., 91.-104. or.

Ramallo, F. eta Rei-Doval, G. (1995): *Publicidade e lingua galega: os consumidores ante o uso do galego na comunicación publicitaria e nas relacións comerciais*, Santiago Konpostelakoa: Consello da Cultura Galega.

Galizieraren Errege Akademia (1994-1996): *Mapa Sociolingüístico de Galicia*. Vol I. *Lingua inicial e competencia lingüística en Galicia* (1994), vol.II *Usos lingüísticos de Galicia* (1995), vol.III *Actitudes lingüísticas en Galicia* (1996). Coruña: RAG.

Galizieraren Errege Akademia (2007): *Mapa sociolingüístico de Galicia*. Vol.I. *Lingua inicial e competencia lingüística en Galicia* (2004). Coruña: RAG.

Villares Naveira, L. (koord.) (2010): *Estudos xurídicos sobre o Decreto para o plurilingüismo*, Ames: Laiovento.

*Altua da oraindik
galiziera erabiltzen duten
hiztunen kopurua,
adineko hiztunak batez
ere. Baina gazteen artean
galizierak duen hiztunen
kopurua ere handia da;
gauza dira linguistikoki,
baina lo daude eta esnatu
egin behar dira.*

OHARRAK

1. Artikulu honetan, galizierak Galiziako administrazioan duen egoera soilik aztertuko dugu. Galizieraren egoera beste eremuetan ezagutu nahi duenarentzat, begiratu: Costas Gonzalez, X.H. (2010): "A situación sociolingüística actual das falas exteriores galegas: entre a ocultación e a desgaleguización", capítulo final del libro *A lingua galega no Eo-Navia, Bierzo occidental, As Portelas e Calabor e o Val*

**Galizian, hizkuntzaren
aurkako eraso horiek
bihotzean hunkitu dituzte
baita PPren jabego izan
ohi diren nekazaritza-
sektore galegista txikiak
ere; eta gainerako gizarte-
mugimenduekin eta indar
politikoekin batera atera
dira Galiziako
gobernuaren
“kontraerreforma”
linguistikoaren kontra
protesta egiteko orain
arte deitu diren bost
manifestazio
jendetsuetan.**

do Ellas: historia, breve caracterización e situación sociolingüística actual. Coruña: Galizieraren Errege Akademia (prentsan).

2. Galizia Gaztelara “atxikitako erreinu” izan zen 1833ra arte, baina barne-kolonia bat izatetik ez zen pasatu: gotzainak eta abadeak, Errege Entzutegiko “entzuleak”, eta abar, gehienak gaztelauak ziren. Galiziarrek ez ziren ezertarako kontuan hartzen mende horietan, beren agintariak gaztelauak izan zirelako ia beti.

3. Begiratu: <http://www.udc.es/snl/documentospdf/LinguaInicial.pdf>

4. Begiratu: <http://www.xunta.es/galicia2005/gl/politica-linguistica.pdf>

5. Begiratu: http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/EvaluationReports/Spain/ECRML2_es.pdf (2005eko txostena), eta http://www.coe.int/t/e/legal_affairs/local_and_regional_democracy/regional_or_minority_languages/2_monitoring/2.3_Committee_of_Experts%27_Reports/Spain_1st_report_esp.pdf (2008ko txostena).

6. INE. Biztanleria eta etxebizitzaren errolda 2001. Begiratu: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/2Ft20%2Fe242&file=inebase>.

7. 2001eko INEko errolda horren arabera ere, asturiarren %6ak aitortzen du galiziera erabiltzeko duen gaitasuna; Asturias mendebaldeko 40.000 biztanleak (Eo eta Navia ibaien artean) eta Asturiasen bizi diren 20.000 galiziarrek dira. Gaztela-Leonen eta Extremaduran, galiziera darabilten bertako 25.000 eta 5.000 hiztun daude, hurrenez hurren (Bierzon bizi diren 10.000 galiziarrekin batera); INEk egindako inkestak ez zituen datu linguistikoak eskatzen.

8. http://www.cis.es/cis/opencm/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=9080&cuestionario=10634&muestra=16225

9. Ramallo, F. eta Rei-Doval, G. (1995).

10. Vid. Villares Naveira, L. (2010): “Estudo sobre a legalidade do ‘Decreto 79/2010 para o plurilingüismo no ensino non universitario de Galicia’. Unha perspectiva constitucional”, L.Villares Naveira (koord.): *Estudos xurídicos sobre o Decreto para o plurilingüismo*. Ames: Laiovento, 9.-56. or.

11. Dekretu berri horrekin, gurasoek Haur Hezkuntzan bakarrik aukeratu ahalko dute seme-alabekin zer hizkuntza erabili, eta irakasgaia guraso gehienek erabaki duten hizkuntzan emango da. Sistema gaizto horren bidez, STEG hezkuntza-sindikatuaren ustez, hiriko gurasoen %40ak galiziera aukeratu zuen 2010-2011 ikasturte honetarako beren seme-alabekin irakaskuntzan erabili beharreko hizkuntza modura; baina “galizieraren” aukera hiriko haur-eskolen %10ean baino ez zen “aurrera” irten: hiriko haurren %30a ezin izan zen galizieraz eskolatu; edo, okerrago oraindik, galiziera hautatu zutenen artean, %25ak baino ez zuen ikusi eskatutakoa betetzen zela.

12. Begiratu: http://ec.europa.eu/education/languages/languages-of-europe/doc145_pt.htm.

13. Begiratu: Costas Gonzalez, X.H. (koord.): *55 mentiras sobre a lingua galega*. Ames: Laiovento.